

Eguzkilorea

Maryse Urruty-k kontatua

Orain dela milaka eta milaka urte, gizakiak munduan zehar zabaltzen hasi zirenean, ez zen ez eguzkirik ez ilargirik. Gizonak eta emazteak ilunpetan bizi ziren denak, suzko zezenen, zaldi hegalarien edo herensuge erraldoien itxura hartuta lurraren erraietatik ateratzen ziren mamuek izaturik.

Gizakiek, Lurrari laguntza galdetzea deliberatu zuten, etsimen hartan.

- Amalur, -otoiztu zioten-, laguntza galdetzen dizugu, babes gaitzazu hondatu behar gaituzten arriskuetatik.

Lurra lanpeturik zebilen, eta ez zien kasurik egiten gizakiei; haiek, ordea, galdetzen eta otoizten segitu zuten, eta azkenean gogoan hartu zuen eskatzen ziotena.

- Laguntza galdetzen didazue, nere seme-alabak -erran zien-, eta lagunduko dizuet. Izaki argitsu bat sortuko dut, eta Ilargi deituko duzue.

Eta Lurrak Ilargia sortu zuen.

Hasiera batean beldurturik egon ziren gizakiak, baina denborarekin haren argitan ibiltzen ohitu ziren. Gizakiak bezala, mamuak eta sorginak ere beldurtu ziren zeruan argizko gauza hura ikusten hasi zirenean, baina haiek ere ohitu ziren, eta berriz hasi ziren beren arpeetatik ateratzen eta gizakiei erasotzen.

Gizakiak lurrarengana berriz joan ziren.

- Amalur -erran zioten-, esker guztiak ematen dizkizugu Ilargi amandrea eman diguzulako, baina zerbait indartsuagoren beharra dugu, lurpeko mamuak erasoka ari baitzaizkigu oraindik.

- Ongi da -erantzun zien Lurrak-, Ilargiak baino ere argi gehiago duen izaki bat sortuko dut. Eguzki deituko duzue. Eguzkiak eguna eginen du, eta Ilargiak gaua.

Eta Lurrak Eguzkia sortu zuen.

Hain zen handia, hain argia eta hain beroa Eguzkia, non denbora luzea eman baitzuten gizakiek haren argitara ohitzeko, baina haren beroari eta haren argiari esker landareak eta zuhaitzak pusatzen hasi ziren. Mamuek eta sorginek aldiz, ezin izan zuten egunaren argitasunera ohitu, eta geroztik gauez baizik ez dira ateratzen.

Berriz joan ziren gizakiak Lurrarengana.

- Amalur -erran zioten-, esker mila ama Ilargia eta ama Eguzkia eman dizkiguzulako, baina beste zerbait behar dugu oraindik, zeren, nahiz eta egunez arazorik ez izan, gaua heldu denean, mamuak beren ziloetatik ateratzen dira eta erasoka hasten baitzaizkigu.

Lurrak aldi huntan ere gizakien galdeak entzun zituen.

- Ongi da. Berriz lagunduko dizuet, baina hau azken aldia izanen da. Lore eder bat sortuko dizuet, hain ederra ere, non gaueko mamuek ikusten dutenean Eguzkia bera dela usteko baitute, eta bakean utziko baitzaituzte.

Eta Lurrak eguzkiaren lorea sortu zuen, Eguzkilorea, gaur egun ere gure etxeak, sorgin, lamin, eritasun, ekaitz eta mamu gaixtoetatik babesten dituen.

